



PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



Josu Erkoreka

**Eusko Jaurlaritzaren bozeramaile
eta Herri Administrazio eta
Justiziako sailburua**

Azkenaldian asko hitz egiten da *gardentasunaz*, *gobernu irekiaz*, *gobernu onaz*, *administrazio onaz*... baina batzuetan ez da argi ikusten horrek guztiak herri-administrazioaren eta herritarren kultura-erlaketan izango duen benetako ondorioa.

Normala da herritarrek politikarekiko duten hoztasun edo gaitzuste gero eta handiagoak, baliabide publikoei ere eragiten dien krisialdi ekonomikoaren testuinguruan eta gero eta konplexuagoak diren eta multifaktorialak diren gizarte-erronken aurrean, zalantzan jartzea ez bakarrik Administrazioak egungo gizartean duen zeregina, baita ere bere funtzionatzeko era; horregatik, gizarte- eta ekonomia-bizitza berraktibatzeke funtzioa betetzea eskatzen zaio, gardentasun osoz eta herritarrekin erantzunkidetasunean.

Gardentasuna herritarrek herri-administrazioen jarduera ezagutzeko, kontrolatzeko eta erantzukizunak eskatzeko duten eskubideari loturik dago, baina baliabide juridiko eta tekniko ere bada herritarren gai publikoetan eraginkortasunez parte hartzea ahalbidetzeko, hobeto informaturik egoten laguntzen baitu, erabaki hobek hartzen, gai publikoetan elkarlanean jarduten eta, guztion ona eta aurrerapen kolektiboa helburu direla, erantzunkidetasunez jokatzeko.

Gardentasunak, azken batean, kalitate demokratikoaren hobekuntzan eragiten du, jarduteko herri-erakundearen legitimotasuna berreskuratzen laguntzen baitu, politika eta erakundeekiko mesfidantza murrizten, ustelkeria eragozten eta gobernu-eraginkortasuna indartzen, zuzenean edo zeharka sortzen dituen pizgarri eta pizgarri-kentzaileei esker.

Horregatik, administrazio eraginkor, garden eta irekia lortzera zuzendutako ardatz estrategikoen -2012-2016 Gobernu Programan konprometituen- esparruan herri-administrazioaren eta herritarren kultura-erlaketak hau bultzatzen ari gara, bai arauen bidez -adibidez, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte-hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektua, onartu berri duguna eta dagoeneko Legebiltzarreko tramitazioan dagoena- eta bai antolaketa-neurrien, prozedura eta tresna berrien bidez, erronka honi sakon eta iraunkortasunez aurre egiten lagunduko digutelarik.

Eremu honetako oinarriko kontzeptuak eta printzipioak argitzea, gardentasunaren kulturen 'ontziratzen' laguntzea eta onik porturatzen lagunduko diguten tresnak begiztatzea: horiek dira "*Gardentasunean ontziratuko gara*" deitu dugun eskifaiaren-eskuliburu honen helburuak. Ez da tresna bakartu bat, baizik eta filosofia berarekin egin ditugun beste batzuen osagarria, adibidez, Euskadiko Demokraziari eta Herritarren Parte-hartzeari buruzko Liburu Zuria, herritarrekin batera egina, Parte-hartzeko Bidaia Gidaliburua edo Prozesu Parte-hartzaileak Ebaluatzeke Eredua.

"*Gardentasunean ontziratuko gara*" bidaia-gidaliburua honek balio diezagula guztioi ahalik eta porturik onenera eramango gaituen ibilbidea taxutzeko, eta zerbitzu publikoa emateko gure eginkizunean, gerta dadila hobetzeko aukeraz beteriko bidaia.

ONIK PORTURATZEKO GIDALIBURUA.
GUTUN IREKIA NIRE ESKIFAIARENTZAT **6**

ITSASONTZIAREN NEURRIAK **8**

ITSASONTZIAREN ZATIAK **10**

ITSASONTZIAREN EGITURA, OSAGARRIAK ETA
ELEMENTU LAGUNTZAILEAK **14**


AMARRATU ETA AINGURATZEKO ELEMENTUAK **18**

32 IRTEERA BAT PLANIFIKATZEA

38 NABIGAZIORAKO SISTEMA
IRRATIELEKTRONIKOAK

42 MANIOBRAK ETA LANAK

44 LEHORREKO ERREFERENTZIAK



MOTORREN EZAUGARRIAK **22**

KONTROL- ETA AGINTE-TRESNAK **26**

AURKIBIDEA

GUTUN IREKIA NIRE ESKIFAIARENTZAT

ONIK PORTURATZEKO GIDALIBURUA

Itsastatzen ibili izan diren gizon-emakumeek sekula ez dute aukerarik izan tamaina eta sakonera honetako itsasontzi batean egiteko.

Ontzi honetan ideologia posible guztiak sartzen dira, eta ez da inor bere jatorriagatik kanpoan uzten.



Egia da itsasontzi guztiak berez gauza bera direla: baten konstanteak guztienak dira, erabilitako nomenklatura berdina da kasu guztietan, tamainaren arabera maniobrak antzekoak dira... Alderik handiena gauza batean dago: beraien ESKIFAIAN.

ESKIFAIAK egiten du itsasontzia "ona" eta eraginkorra izatea edo "txarra" eta ezertarako balio ez duena. Eta ez ahaztu eskifaiakoa izateak elementu batez baturik egotea esan nahi duela, eta horrek egiten gaitu guztiok berdinak:

- ☸ eremu honetan oinarrizko kontzeptuak eta printzipioak argitzeko
- ☸ gardentasunean ontziratzeko, honek herri-administrazioaren kulturen eta herritarrengan eskatzen dituen aldaketekin

itsasoa (gure kasuan, zerbitzu ematen diegun gizartea eta pertsonak).

Azkenaldian asko hitz egiten da **gardentasunaz, gobernu irekiaz, gobernu onaz, administrazio onaz...** baina askotan ez gara ados jartzen horrekin esan nahi dugunaz eta horien aplikazioak kudeaketa publikoan izan ditzakeen ondorioez. Eskifaiaren Eskuliburu hau lagungarri izango zaigu:

- ☸ eta onik porturatzen lagunduko diguten tresnak begiztatzen

Eskuliburu honek Gardentasunaren Itsasontzia oso-osorik ezagutzen lagunduko dizu. Eta bertan egiten dugun eskuhartzearen arabera, itsasaldi atsegin eta segurua egitea edo ez egitea lortuko dugu, eta posible den porturik onenera edo okerrenera iritsiko gara.

Baina gogoratu hau: ez baduzu Eskifaiaren Eskuliburua betetzen, esan nahi du ez duzula batere ulertu itsasoa.



ITSASONTZIAREN NEURRIAK

GARDENTASUNERAKO NOMENKLATURA NAUTIKOA

Gardentasunaren itsasontzian kalatuakgurejoan-etorriak baldintzatuko segurtasunez eta eraginkortasunez ditu, ez badugu hondoa jo nahi. Gure itsasontziaren tamainak esango digu itsastatzeko, lehenengo sakon ezagutu zer-nolako itsasoak zeharka ditzakegun behar da gure itsasontzia. Bere luzerak eta errunak (zabalerak) gure maniobra-gaitasuna ezarriko dute eta zingo edo eta zein portutara hel gaitzkeen.

OHARRAK

EZ GALDU NORABIDEA Gardentasuna = eskubidea (ezagutzea + jakitea + parte-hartzea) = kalitate demokratikoa

Jakiteko eskubidea gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen tresna bat da, eta botere publikoen, politikoen edo administratiboen jarduera ezagutzeko eskubidea jasotzen du, jarduketa kontrolatzeko eta erantzukizunak eskatzeko eskubidea.

Demokrazian, administrazioa betetzen dituen ekintza edo huts guztien arduradun da eta herritarrei zer eta nola egiten duen jakinarazi beharko die.

Gardentasuna herritarrek gai publikoetan parte hartzeko baliabide juridikoa eta teknikoa da; izan ere, horren bidez, herritarrak hobeto informatuta daude, erabaki hobeak har ditzakete, gai publikoekin lankidetzan jardun dezakete eta guztientzat ona denari eta aurrerabide kolektiboari lotutako xedeekin erantzukidetasuna izan dezakete.

Azken batean, gardentasunak kalitate demokratikoa areagotuko du; izan ere, gainera:



☼ erakunde publikoek jarduteko legezatasuna berreskuratzen laguntzen du, bai eta konfiantza falta politikoa eta instituzionala murrizten ere;

☼ eta gobernu-eraginkortasuna indartzen laguntzen du, gardentasunak dakartzan pizgarriei eta pizgarri-kentzeei esker.

☼ halaber, ustelkeria saihesten

ITSASONTZIAREN ZATIAK

GARDENTASUNERAKO NOMENKLATURA NAUTIKOA

Eskifaia osoak jakin behar du itsaso zabalean ez dagoela atze edo aurrealderik, ez ezker edo eskuinalderik. Itsasontziak popa eta branka, ababor eta istriborra ditu. Eraginkortasunez komunikatzeko, esanahiak partekatu

behar ditugu. Gainera, ezinbestekoa da jakitea zein diren gardentasunaren itsasontziaren egitura-zatiak, hondatzen badira bere segurtasunari eragin eta gure ur-marra hondora dezaketanak.

OHARRAK

Zalantza-itsasoa KONTZEPTUAK ARGITZEAK
EKINTZA ERAGINKORRA BULTZATZEN DU

Gobernantza hitzak, oro har, erabakiak hartzeko eta horiek abiarazteko edo ez abiarazteko ezartzen diren prozesuei egiten die erreferentzia. Horrela, enpresa, erakunde, udalerrri, eskola, unibertsitate eta abarretako gobernantzari buruz hitz egin dezakegu.

Gobernantza Onari buruz hitz egiten dugu erabakiak hartzeko prozesuak eta horien ezarpenak eraginkorrak direnean, alegia, demokratikoki egiten direnean eraginpean dauden eragileen artean, helburuaren arabera baliabide orekatuak kontsumitzen direnean, beharrezko informazioarekin hartzen direnean...

Herrialde bateko gobernantzari buruz ari garenean, **Gobernuak** dira tartean dauden eragileetako bat, baina ez bakarra. Gobernantzaren eragile dira, halaber, herritar antolatutako eta ez antolatutako, ekonomia- eta gizarte-eragileak, presio-taldeak...

Gobernu Ona ulertzen da erabakiak hartzean eta horien ezarpenean **"gauza onak egiteko"** baliatzen dena dela, hau da, honako printzipio hauen **"balio publikoa sortzeko"**:

1. herritarren parte-hartzeak aberastu egiten du demokrazia ordezkatzaileria eta ezinbestekoa da kudeaketa publikoan
2. gardentasuna da beharrezko informazio publikoa argi eta erabilgarri jartzea
3. legezotasun-printzipioa, arauen aplikazio inpartziala ezartzen duena
4. etika kargu publikoaren jokabidean eta enplegatu publikoen lanean, zerbitzu publikora bideratuta egon behar duena; horrek konpromiso pertsonalak eta instituzionalak dakartza, erakundearen helburuak lortzeko, bai eta herritarrekiko konpromisoak ere. Arau batzuek Gobernu Onari oso modu murriztailean egiten diote erreferentzia, eta bakarrik egiten diete erreferentzia ustelkeriaren kontrol-neurriei, eta hori, hain zuzen ere, kontrakoaren bereizgarri da, "gobernu txarraren" bereizgarri
5. erantzukizunak dakar interes-talde guztiak arazoizko denbora-esparru batean artatzea
6. adostasuna, gizarteko interesen arteko bitartekaritza behar duena, giza-garapen jasangarria lortzeko
7. ekitateak, kide guztiak erkidegoaren zati direla bermatzen du eta beren ongizatea hobetzeko edo mantentzeko aukerak ematen dizkie
8. kudeaketaren eraginkortasuna eta efizientzia, alegia, erabilitako prozedurek beharrezko emaitza eta inpaktuak dakartzatela, horretarako eskuragarri dauden baliabideak ahalik eta ondoen erabiliz.



8 printzipio horiek dira Gobernu Onaren oinarriak, eta horien xedea da balio publikoa sortzea. Balio publikoa sortzen da:

eraginkortasunez erantzutean gizarte-behar edo -eskakizunei, gurari politiko horiek legezotasun demokratikoaren prozesu batean oinarrituta agertzean

gizarte-aldaketak sustatzean, bai gizarte osoaren aldaketak edo gizatalde jakin batzuen aldaketak sustatzean, hain zuzen sortutako balio publikoaren hartzaile legitimo gisa aitortutako horienak

eta, betiere, jabetze kolektiboaren dimentsioa dagoenean, hori baita ondasun publikoen ezaugarria.

Baina Gobernu Onak **Administrazio Ona** behar du, "helburu dituen gauza onak ondo egiteko". "Gauzak hobeto egiteko" aukera ematen duten tresnek zerikusia dute honako hauek sartzearekin, besteak beste:

politika eta zerbitzu publikoen etengabeko plangintza- eta ebaluazio-mekanismoak

etengabe hobetzen laguntzen duten eta erabiltzaile edo onuradunekin konpromisoa duten zerbitzu-eskaintza ezartzen duten kudeaketa aurreratuko sistemak

informazioko eta herritarrekiko elkarreragineko aurrez aurreko plataformak eta birtualak, proposamenak eta iradokizunak, kontrastea eta entzute aktiboa egiteko aukera ematen dutenak

berrikuspen-tresnak, arauen kalitatea, administrazio-prozedurak... hobetzeko, sinplifikatzeko eta arrazionalizatzeko

langileen eta erabiltzaileen lan-antolaketako eta inplikazioko eredu malguak

informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, prozesuak automatizatzeko eta informazio publikoa biltzeko eta egoki erabiltzeko

Gainera, azken sasoiari, AEBko Barack Obama presidentek 2009ko urtarrilaren 21ean aldarrikatu zuen Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Memorandumetik aurrera, beste kontzeptu bat egin da ezagun, **Gobernu Irekia**, eta, funtsean, Gobernu Onaren 3 oinarriari egiten die erreferentzia:

Gardentasuna: Gobernu gardenak Administrazioak herritarren aurrean kontuak ematea sustatzen eta bultzatzen du, eta egiten ari denari eta jardun-planei buruzko informazioa ematen du. Horrek aukera ematen du hura kontrolatzeko eta ekonomia- eta gizarte-balioa sortzeko, Administrazioak libreki eskainitako datu publikoen bidez.

Lankidetzaren: Elkarlaneko gobernu batek herritarrak eta gainerako eragileak Administrazioaren lanean inplikatzeko eta konprometitzeko dituen

Parte-hartzea: Gobernu parte-hartzaileak herritarrek politika publikoen eraketan aktiboki parte hartzeko eskubidea hobetzen du eta Administrazioa animatzen du herritarren ezagutzatik eta esperientziaz onura ateratzera.

ITSASONTZIAREN EGITURA, OSAGARRIAK ETA ELEMENTU LAGUNTZAILEAK

GARDENTASUNERAKO NOMENKLATURA NAUTIKOA

Itsasontzi orok lema behar du, nabigatu edo itsastatu ahal izateko gobernu-elementua. Baina, gainera, gobernuak bultzada behar du eta helizea da gure itsasontziak duen elementua ur-masak bultzatzeko, mugimendua eraginez eta etengabeko interakzio-fluxua eskifaiaren eta herritarren artean.

Azken urteotan, egituraren diseinua eta funtzionaltasuna aldatuz eta sinplifikatuz joan dira. Ontzigintzako arkitektura modernoak, beraz, irakaspen baliotsua ematen digu: iraganean funtzionatu zigun eta barneratu genuen guztiak ez du indarrean jarraitzen; batzuetan aldatzea ezinbestekoa da hobetzeko.

OHARRAK

Prestatu itsasoratzeko! Zer da eta zer EZ da gardentasuna? Ezagutu JOKO-ARAUAK

Gardentasuna hainbat arau juridikotan araututako printzipioa da, eta helburu du herritarren eta administrazioaren arteko informazio-fluxua bermatzea, jarduera publikoaren kontrolerako eta gai publikoetan herritarren parte-hartzea sustatzeko. Horrek aldaketa

handiak dakartza administrazio publikoetan lan egiteko moduan eta, oro har, erakunde publikoetan nagusitzen joan diren balioetan –orain arte opaku samarrak izan baitira erakundeok–.

Hori horrela, gardentasuna **honako oinarrizko arau hauek** arautzen dute:

1. Gardentasuna bitarteko bat da; ez da xede bat, berez, baizik eta demokrazia eraginkorrago eta parte-hartzaileago baten zerbitzura dago.
2. Legez hala ezarrita dagoelako, administrazio guztiek izan behar dute gardenak, nahiz eta maila autonomikoan edo tokikoan exigentzia maila desberdina izan, kontuan hartuta oinarrizko legeria baino ezin den aplikatu edo legeria autonomikoan edo foralean garapen handiagoa ematen ote den.
3. Administrazioak duen informazio guztia, berez, publikoa eta eskuragarria da, baina zenbait muga daude hura eskuratzeko; izan ere, zabalkundean interes publikoa behar bezala neurtu behar da, babestu beharreko ondasun legitimorik dagoen ikusita (pertsonek intimitatea, segurtasun publikoa, tutoretza judizial eraginkorra, lanbide-sekretua edo jabetza intelektuala eta industrial, ikuskaritzako administrazio-funtzioak...).

4. Administrazioa herritarrei buruz bere eskuetan dauden datu pertsonalen erabilera egokiaren arduraduna da; izan ere, herritarrek beren intimitaterako eskubidea daukate, datu pertsonalen babeserako arauetan ezarritakoarekin bat etorritik.



5. Gardena izatea da kalitatezko informazioa ematea, alegia, benetakoa, argia, koherentea, denboraren aldetik egokia, materialki esanguratsua, egituratua, zehatza, ulergarria, osoa, segurua, erraz eskuratzekoa, kanal anitzekoa, erkagarria, formatu anitzekoa, elkarreragingarria eta berrerabilgarria legez ezarritako baldintzetan.

☼ Informazioa eman behar da. Datuak ematea gardentasunaren jardunaren mailarik baxuena da; kontua, benetan, informazio ulergarria eta esanguratsua ematea da.

☼ Datu gehiegi ematea, arauak ezartzen dituen mugekin lotutako behar bezalako babesa eman gabe, araua ez betetzea da.

☼ Datu desegituratuek, eguneratu gabeek, osatu gabeek... nahasmena eragin dezakete; izan ere, informazioa ez dute ulergarri egiten.

☼ Datuek egon behar dute gizarte- edo ekonomia-xedeetarako berrerabiltzeko aukera ematen duten formatuetan. Informazio horren erabilera egokiaren edo desegokiaren erantzukizuna berrerabiltzailearena da.

6. Herritarren eta Administrazioaren arteko informazio-fluxua ez dute bakarrik espedienteen administrazio-prozeduraren arauak arautzen. Espedienteak informazioa jasotzen du, eta informazio hori edozeinentzat dago eskuragarri, eta Administrazioak duen informazio orok, administrazio-espeditente batean egon ala ez, gardentasun-printzipioak bete behar ditu.

7. Informazioa eskuratzeko, pertsonak ez dute zertan egiaztatu eskuratzeko arrazoiak edo informazioaren interesa.

☼ Identifikatu besterik ez dute egin behar,

☼ informazioa eskuratzeko modalitatea zehaztu,

☼ bai eta harremanetarako helbidea ere, ahal dela elektronikoa, jakinarazpena egiteko.

Sarbidea doakoa da (kopien ondoriozko tasak gorabehera), eta hartzaileari dagokionez errakuntza egon daiteke; beraz, administrazioak hartzaile zuzena zein den baldin badaki, berriro bidali beharko dio.

8. Administrazioak justifikatu behar du, arrazoituz, zergatik ez duen informaziorako bide ematen edo zergatik mugatzen duen. Informazioa ez onartzeko edo sarbide mugaturako kausak arauak mugatzen ditu.

9. Ez dago gardentasunik gardentasuna bera babesten duen antolaketaren kulturarik eta hura osatzen duten pertsonen kulturarik gabe, hain zuzen ere Gobernu Irekia, Administrazio Ona eta Gobernu Ona kokatzen diren balio eta printzipioen esparruan.

10. Web-orrialdeak, gardentasunaren atariak, Open Data atariak (datu irekiak) eta zabalkunde elektronikoa ordenagailuko bide terminaletatik, mugikorretik... egitea ahalbidetzen duten beste plataforma batzuk oso tresna erabilgarriak dira gardentasuna gauzatzeko, baina gardentasuna administrazio-ekitaldi presentzial edo birtual guztietan gauzatu behar da.

AMARRATZEKO ETA AINGURATZEKO ELEMENTUAK

GARDENTASUNERAKO NOMENKLATURA NAUTIKOA

Gure itsasaldiko etapa bakoitzak hainbat portutara eramango gaitu. Baina gure bidaia alferrikakoa izango da, ez badugu gure itsasontzia ondo amarratzen portu bakoitzean dauden askotariko mutiloiei. Ez baditugu gure sokak ondo lotzen, ez da egongo babesik, itsasoaren indarrak gure itsasontziari erremediorik gabeko kaltea egitea eragotziko dionik. Gardentasunaren itsasontzian itsasoak

eta ozeanoak libre eta malgutasunez zeharkatzeko dugun gaitasuna gure ontzia ainguratzea eta ekaitzetatik babestea ahalbidetzen duten elementuek baldintzaturik dago. Jar diezaiegun arreta, halaber, herritarrek itsasora bota dituzten buiei, porturako bidean guri lagundu eta gidatzeko dira-eta.

OHARRAK

*Herritarrekin helburu publikoak partekatzean,
zalantzarik ez*

*Helizeak gardentasunaren itsasontzia bultzatzeko
konbinatzen direnak*

Gardentasunak Administrazio Publikoak edozein herritarren eskura-interesduna izan ala ez izan- daukan informazioa jartzeko betebeharrak orokorra ezartzen du, informazioa eskuratzeko ezarritako mugak behar bezala arrazoituta.

LEHEN espedientera jotzeko eskubidea baino ez zegoen, administrazio-prozedurek araututa.

ORAIN, gainera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ere badago, jakiteko eskubidearekin lotuta.

Gardentasunak **Administrazio Likidoaren**, malguaren, eskuragarriaren eruedetara bideratuko du, eta informazio hori herritarrei zuzenduko zaie, elkarriketara eta eztabaidara bideratuta baitago, emaitzarik onenak eskuratzeko, sortzailekidetasunaren ondorioz. Administrazio horretan erabakiak hartzeko faseak azkarra, egiaztagarria... izan behar du, eta ezagutza eta elkarrekin ikastea ahalbidetu beharko ditu, konfiantzan oinarrituta.

Administrazio Likidorako mugimendu horrek esan nahi du honako bi administrazio hauetako batetik bestera igarotzea:

☸ sartzen eta irteten dena ikusten den administrazioetik, baina barruan zer gertatzen den ikusten ez denetik, (bertan fluxuak administrazio-prozeduraren arautik baino ez dituzte arautzen)

☸ daukan informazioaren, hartzen dituen erabakien, lan-metodoen... berri ematen duen administrazioa (horrek aukera ematen die herritarrei informazio-fluxua eta administrazio-jarduera ikusteko eta hari begiratzeko)

☸ eta, azkenik, administrazio demokratiko egoki batera; hala, herritarrek elkarreaginean jardun dezakete, informazio-fluxura jo dezakete, administrazio-jardueran parte har dezakete eta partekatutako xede publikoetan kanpotik lankidetzan jardun dezakete.

Gure arauak gardentasuna sustatzeko bi modu ezartzen dituzte:

☸ Proaktiboki, administrazioetatik informazioa maiztasun jakin batez emanda. **PUBLIZITATE AKTIBO** esaten zaio.

☸ Erreaktiboki, herritarrek informazio publikoa eskuratzeko egiten dituzten eskaerei erantzunez, espedientera jotzeko eskubidearen osagarri. **PUBLIZITATE PASIBO** da, informazio publikora jotzeko eskubide gisa araututa.

Baina administrazio likidoaren baitan, Gobernu Onaren esparruan, hau ere sustatu behar da:

☸ **ELKARLANEKO GARDENTASUNA EDO PARTE HARTZAILEA**, Gobernu Irekiaren dimentsio gisa; halakotzat ulertuko da administrazioen eta herritarren artean informazioa antolatzea, politikak edo zerbitzu publikoak egokitzeko eta gauzatzean eta jarraipenean biak erantzule izateko; hori biezako izango da aberasgarria, ezagutzari eta esperientziari dagokienez.

SEGURTASUNA

Seguru nabigatu ahal izateko, baita haize indartsu eta itsaso harroarekin ere, ezinbestekoa da beharrezko neurriak hartzea gure itsasontziaren flotagarritasuna eta egonkortasuna bermatzeko. Zamaren pisua banatu egin behar da eta objektu astunak lotu egin behar dira, horien lerratzeak hondoratzerik eragin ez dezan. Ezta ere ez ditugu ahaztu behar gure eskifaiak itsasaldi segurua egitea bermatzen duten elementuak. Salbamendu-txalekoak, suteen aurka babesteko elementuak...

non dauden jakin behar du eskifaiak eta elementu horiek prest egon behar dute larrialdietan erabiltzeko. Itsasontziaren nahiz eskifaiaren segurtasun-neurriak ez dira aukerakoak. Itsas kolpeak maiz gertatuko dira eta saihestezinak dira, baina segurtasun-neurriekin lortuko dugu gure itsasaldia ez amaitzea garaiz lehen, gure itsasontzia laguntza-seinaleak bota beharrean dela eta, helmugara iritsi gabe, porturen batera atoian eramanda.

OHARRAK

Nork izan behar du gardena eta zein dira bere betebeharrak? OHARRA NABIQATZAILEENTZAT

Nahiz eta exigentzia maila eta modua bera ez izan, gardenak izan behar dute honako hauek:

- ☸ administrazio publiko guztiek eta horien sektore publikoak, bai eta administrazio publiko baten presentzia -gutxiengoa edo testimoniala bada ereduten edozein izaera juridikotako erakundeek
- ☸ alderdi politikoek, eta sindikatu- eta enpresa-erakundeek
- ☸ urtebetean 100.000 eurotik gorako laguntzak jasotzen dituzten erakunde pribatuak edo urteko diru-sarreraren % 40k laguntzaren edo diru-laguntzaren izaera duenean (eta hura 5.000 eurotik gorakoa denean)
- ☸ kontratu publikoen adjudikaziodunek, kontratuak ezartzen dituzten baldintzetan
- ☸ eta zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten edo administrazio-ahalak gauzatzen dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek.

Administrazio publikoetan, betebeharrak arduradun publikoak eta enplegatuak konprometitzen dituzte, jarduera publikoa gauzatu bitartean.

Erakunde gardenagoa izateko, alderdi hauek zehaztu behar dira:

- ☸ **oinarrizko erakunde** bat, herritarrekin elkarreaginean jarduteko bideei erantzungo dieten pertsonekin. Informazio-unitate horiek argitaratutako informazioa eguneratuta egoteko ardua izan behar dute, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak kudeatzeko, eta erantzukizuna duten arloan, gardentasunaren funtzionamendu orokorra ikuskatzeko ardua izan behar dute. Halaber, jarraipen- eta ebaluazio-unitateak zehaztu behar dira, administrazio likidoagoa lortzeko informazio-unitateekin lotuta.

Enplegatu eta arduradun politiko guztiak izan daitezke informazio-iturri, baina komeni da baliabideen eraginkortasuna eta arrazionalizazioa bermatzen duen erakunde bat egotea, barnean eta kanpoan irekita dagoen erakunde batean aurrera egiteko.

Administrazioek **aldian behin eta eguneratuta argitaratu behar dute** jardun publikoaren funtzionamenduarekin eta kontrolarekin lotuta dagoen jardueraren **gardentasuna bermatzeko esanguratsua den informazioa**, kalitatezkoa, beren webgunean edo egoitza elektronikoan.

Halaber, **informazio publikora jotzeko eskaerei erantzuteko beharra daukate**, hilabeteko epean (beste hilabete batera luza daiteke, eskaera konplexua bada), araudi autonomikoek edo tokikoek oinarritzko lege honek ezarritako epea murriztu ezean.

☸ nola, noiz, non eta nork argitaratzen duen eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen espedientei nork erantzuten dien eta horiek nork bideratzen dituen edo herritarrekin elkarreaginean jarduteko buzoiei edo kanalei nork erantzun behar dien ezartzen duten **prozedura** batzuk

☸ **herritarrekin elkarreaginean jarduteko bide batzuk**: telefonoz, aurrez aurre, elektronikoki, gailu mugikorren edo web-zerbitzuen bidez... Baina arreta pertsonal egokiarekin, elkarreagin eraginkorra bermatzeko.

MOTORREN EZAUGARRIAK

PROPULTSIOA

Itsasontziaren propulzioa eta mugitzen da itsasontzia. Itsas uraren sistema horren ezaugarriak aldagai garrantzitsuak dira, egin behar duen zerbitzuaren arabera itsasontzi bat diseinatzekoan ondo kontuan izan beharrekoak. Horregatik, motorrak jartzeko lekua eta beraien potentzia aldatu egiten da itsasontzi bakoitzean. Baina itsasontzien propulzioan bada oinarriko printzipio komun bat: sistema mekaniko sinple baten bidez propulsiaturiko urari esker higitu edo

bultzada, helizeen bidez bideratua, itsasontziari transmititzen zaio ardatzaren bidez eta horrek mugiarazten du itsasontzia. Horretarako engranaje biderkatzaileak behar dira energia-transmisio hori ziurtatzeko, baita motorren funtzionamendu eraginkorra ere. Gure itsasontziak zeharkatzen duen itsaso horrek berorrek ahalbidetzen du higitzea erresistentziak gaindituz.

OHARRAK

datu eta argibide garrantzitsuak behar ditugu:
URAK BAKARRIK EZ DU ITSASONTZIA
MUGIARAZTEN!

Datuak berez ez dira herritarrak informatuta egoteko eta arduratsuak izateko **informazioa**, ez baldin badaude ondo egituratuta eta antolatuta eta ez baldin badira ulergarriak eta eskuragarriak. Prestatutako datuak informazio bilakatzen dira, baina **informazioa ez da berez gardena**, baldin eta kontrolerako, erabakitzeko laguntzarako edo parte-hartzerako xedeak kontuan hartuta antolatu ez bada.

Gardentasunak eskatzen du datu soiletik amaierako informaziora aldatzea, alegia: **argitaratzea** (datuak eskura jartzea), **zabaltzea** (edozeinek eskuratu ahal izateko zabaltzea) eta **azaltzea** (datuak herritarren hainbat erabilera-profiletarako modu ulergarrian azaltzen dituzten analisiak ematea, horien espezializazio maila edozein izanda ere).

Administrazio baten aurrekontua edo informazio publikoaren fasean dagoen arau-proiektua edo laguntza-programa bat... argitaratzea ez da gardentasun-jarduera bat, publikoa izan ezean baliorik ez duen arau bat argitaratzea baino ez da.

Datuak zenbat eta kalitate handiagoa izan, nire erakundea orduan eta gardenagoa izango da. Zenbat eta datu gehiago zabaldu eta azaldu, orduan eta gardenago.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak Irekian (<http://aurrekontuak.irekia.euskadi.eus/?locale=eu>) argitaratzea informazio gardenaren adibide ona da; izan ere, erraza da ulertzea nola banatzen den bere aurrekontua, nondik datozen diru-sarrerak eta zertara bideratzen diren gastuak. Informazioa aurkezteko modua oso bisuala denez, aurrekontu-gaietan aditua ez den herritar batek ere uler dezake informazioa, eta soldata gordina horretarako ezarritako zerga-kalkulagailu batean sartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza-arlo bakoitzari zenbateko ekarpena egiten dion jakin dezake.

Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuak

Ikuspegi orokorra | Politikak | Zure ekarpena | Zer esan nahi du...?

Zerbait zehatza bilatzen ari al zara? **BILATU**

Nola eta zertan gastatzen du Eusko Jaurlaritzak?
Gure aurrekontua nola banatzen den modu argian erakusten dizugu. Nondik datoz diru-sarrerak eta zertara zuzentzen dugu gastua?

ZENBAIT ADIBIDE:

- Farmacia → 499.942.933 €
- Educación Infantil y Primaria → 905.643.663 €
- Tecnología → 112.597.916 €

Ikuspegi orokorra
Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrera eta gastuen inguruan ideia orokor bat izan dezazun.

Politika zehatzak
Arlo bakoitzaren aurrekontuak eta burutzen dituzten programa erakusten dizkizugu.

Zer ematen dut nik?
Zergekin bildutako dirua zertan inbertitzen den erakusten dizugu.

MOTORREN EZAUGARRIAK

Laburbilduz, informazioak izan behar du:

- ☀ **benetakoa**, jatorrizko iturritik datorrena, manipulaziorik gabea
- ☀ **erabilgarria**, alegia, xede bat izatea: kontuak emateko, parte hartzeko edo herritarren lankidetzarako...
- ☀ **eguneratua**. Datuak argitaratzeko maiztasuna horien izaeraren arabera izango da, baina erkaketa egiteko aukera ematen duen logika duten denbora-serieak izateko, erabilgarritasuna hartu behar da kontuan
- ☀ **eskuragarria**, "irisgarritasun unibertsalaren edo guztiontzako diseinua"ren printzipioari jarraituz. Testuak argitaratzen direnean, oso garrantzitsua da "erraz irakurtzeko material"en inguruko nazioarteko estandarrei jarraitzea, alegia, horiek hizkera xumea eta zuzena, eduki eskuragarriak eta edukia eta forma bateratzen dituen diseinua izatea, herritar guztiontzako modukoak izan daitezten.

☀ oso garrantzitsua da, halaber, testu horiek **formatu digitaleko datuak izatea, webaren bidez eskuragarriak direnak, estandarizatuak eta irekiak**, horiek ulertzeko eta berrerabiltzeko aukera ematen duen egiturari jarraituz, hirugarrenek eginiko datu horien ondoriozko produktuen bidez balioa eta aberastasuna sortzeko, administrazioak hasieran aurreikusi gabeko gizarte- edo ekonomia-erabilerekin. Horiek Open Data edo Big Data izenez ezagutzen dira. Erresuma Batuan, 2012an, datuen % 75 berrerabilgarriak eta jabetza irekikoak ziren. <http://data.gov.uk/>

Arauk ezartzen du argitaratutako informazioa berrerabilpen-printzipiora egokitu beharko dela; alegia, datu publikoak liberatu beharko dira, formatu berrerabilgarrietan eta erabilera irekiko lizentziekin. Horrek xede laukoitza du:

- ☀ **balioa eta aberastasuna sortzea** eta, horrela, enpresek, infobitartekariak eta herritarrek, oro har, bideratutako produktuak eskuratzea
- ☀ **gardentasuna sustatzea** eta, horrela, datuak berrerabiltzeko aukera ematea, kudeaketa publikoa aztertzeko eta ebaluatzeko
- ☀ **administrazioen arteko elkarrengarritasuna**, hainbat administrazioetako datuak erabiltzen dituzten zerbitzuak sortzea ahalbidetuz
- ☀ **datu publikoen barne-antolamendua**, datuak dokumentatzeko eta sailkatzeko eraginkortasuna sustatuz.

Open data Euskadi, munduan anglosaxoia ez den lehen open data ataria da; katalogoko datu-kopuru handiagatik nabarmena da eta eskuzko fitxategien eta **euskadi.eus** eduki-kudeatzailearen informazioaren bidez, EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundearen estatistiken bidez, geoEuskadiren datu geografikoen eta Eusko Jaurlaritzaren aplikazio informatikoen bidez elikatzen da (horrek eskatzen du aplikazioak garatzeko kontratu berrietan Open Dataren deribatua sartzea baldintzetan edo kontratuetan, dauden aplikazioak aldatzeko).

Datu-bolumen handiez ari garenean, kudeaketa eta analisia bi tresnaren bidez egiten da: **big data** izeneko teknologiaren bidez eta gizakiek eginiko prozesu intelektualen bidez (sailkapena, eguneratzea, informazioaren kalitatearen kontrola, informazioaren arkitektura, datuen aurkezpenaren erabilgarritasuna, kontserbazioa, informazioaren analisia, etab.).



KONTROL- ETA AGINTE-TRESNAK

PROPULTSIOA

Oro har, itsasontzi orok ditu bi eratako segurtasun-mekanismoak. Lehenengoek edozein arazoren berri ematen digute eta beraien bidez kontrolatzen ditugu motorren abiadura, tanga-mailak, aire-presioa edo iheseke gasen temperatura. Sentsore eta adierazleei kontu eginez, parametro horiek kontrolatu ahal izango ditugu seguru itsastatzeko. Bigarren motakoak, ordea, etete-mekanismoak dira, edozein anomaliaren aurrean gure itsasontzian kalte handiagoak gertatzea saihesten dutenak. Aginte-

panelaren bidez motorraren zatien funtzionamendua kontrolatzen dugu eta aldaketak detektatzen ditugu alarmak jotzen hasi aurretik. Irakurketa errazteko parametroak multzokatu egiten ditugu, beraien eskala eta tipologiaren arabera. Azkenik, ez dugu ahaztu behar segurtasun-mekanismoak etengabe eguneratzen ari direla, eta erregulartasunez ikuskatu behar direla ziur egoteko gure nabigazio-sistema ez dela zaharkituta geratu.

OHARRAK

Zer-nolako informazioa argitaratu? Eskala egin
PORTU HOBEAGOETAN EDO OKERRAGOETAN

Publizitate aktiboaren betebeharra dela eta, informazioaren argitalpenean hiru exijentzia maila bereiz ditzakegu, gardentasunarekiko konpromiso gero eta sakonagoak eskatzen dituztenak:

🌞 OINARRIZKO ESKALA: Derrigorrezkoa da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legea indarrean sartu zenetik.

🌞 ESKALA ERTAINA: Autonomia-erkidegoen, parlamentuen, toki-erakundeen, aldundien... artean erkaketak egiteko aukera ematen du. Hori ezarri du, esaterako, Transparencia Internacional España erakundeak, eta hasierako fasean administrazioak sustatu eta motibatu ditu erakundeen gardentasunean lehenengo postuetan egon nahi izan dezaten.

🌞 ESKALA ALTUA: Arau autonomiko batzuek eskatzen dute eta, zehazki, 2015eko azaroaren 10ean onetsitako euskal sektore publikoaren Gardentasunari, Herritarren Parte-hartzeari eta Gobernu Onari buruzko Legearen proiektuak, egun izapidetza parlamentarioan dagoenak, zorrotzago osatzen ditu publizitate aktiboko betebeharrak, eta, gainera, herritarren informazio-eskaerei erantzun azkarragoak emateko konpromisoa ezartzen du, baita informazioaren kalitate eta eskuragarritasun maila handiagoa eskaintzekoa ere.

Hurrengo koadroak labur biltzen du 19/2013 Legeak, Transparencia Internacional España erakundeak diseinatutako Autonomia-Erkidegoen Gardentasun-Indizeak (INCAU 2014) eta Eusko Jaurlaritzaren gaur egungo Euskal Sektore publikoaren Gardentasunaren,

Herritarren Parte- Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege-Proiektuak argitaratzeko eskatzen duten informazio-tipologia.

MOTORRAREN FUNTZIONAMENDURAKO KONTROL-PANELA:
adierazleak, detektagailuak eta segurtasun-gailuak

OINARRIZKO ESKALA 19/2013 LEGEA	ESKALA ERTAINA NAZIOARTEKO GARDENTASUNARI BURUZKO SAILKAPENA ESPAINIA (INCAU) 2014ko adierazleak
INFORMAZIO INSTITUZIONALA, ANTOLAMENDUAREKIN ZERIKUSIA DUENA ETA PLANGINTZARI BURUZKOA	A) AUTONOMIA-ERKIDEGOARI BURUZKO INFORMAZIOA (21)
	1.- Autonomia-erkidegoko hautetsiei eta kargu politikoei buruzko informazioa (C.A.) (5)
	2.- Autonomia-erkidegoko antolamenduari eta ondareari buruzko informazioa (9)
Eginkizunak, antolamendu-egitura eta arduradunak, profil eta ibilbide profesionala zehaztuta	3.- Erkidegoko araei eta erakundeei buruzko informazioa (7)
Aplikatu beharreko araudia	B) HERRITARREKIKO ETA GIZARTEAREKIKO HARREMANAK (14)
Urteko eta urte anitzeko planak eta programak eta haien betetze-maila	1.- Autonomia-erkidegoaren web-gunearen ezaugarriak (3)
GARRANTZI JURIDIKOA DUEN INFORMAZIOA	2.- Herritarrentzako informazioa eta arreta (5)
	3.- Herritarrekiko konpromiso-maila (6)
	C) GARDENTASUN EKONOMIKO-FINANTZARIOA (13)
Illoak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak... zuzenbidearen interpretazioa diren neurrian	1.- Kontuei eta aurrekontuari buruzko informazioa (4)
Lege-aurreproiektuak eta legegintzako dekretu-proiektuak, memoriekin eta txostenekin batera	2.- Gardentasuna diru-sarreretan nahiz gastuetan (6)
Erregelamendu-proiektuak, memoriekin eta txostenekin batera	3.- Autonomia-erkidegoko zorren inguruko gardentasuna (3)
EKONOMIARI, AURREKONTUEI ETA ESTADISTIKEI BURUZKO INFORMAZIOA	D) GARDENTASUNA ZERBITZUEN, LANEN ETA HORNIDUREN KONTRATAZIOAN (9)
	1.- Zerbitzuak kontratatze prozedura (3)
	2.- Lanen jarraipena eta kontrola (4)
Kontratu guztiak	3.- Hornitzaileekiko eta kontratistekiko hamarremanak eta eragiketak (2)
Izenpetutako hitzarmenen zerrenda	E) GARDENTASUNA LURRALDE-ANTOLAMENDUAREKIN, HIRIGINTZAREKIN ETA HERRI-LANEKIN LOTUTAKO GAJETAN (7)
Emandako diru-laguntza eta laguntza publikoak	1.- Lurralde-antolamendua eta hirigintza (5)
Aurrekontuak, gauzatze-maila eta aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-jasangarritasuneko helburuen betetze-maila	2.- Herri-lanei buruzko txostenak, iragarkiak eta lizitazioak (2)
Urteko kontuak eta kontu-auditoriari buruzko txostenak	F) GARDENTASUNAREN LEGE BERRIAREN ADIERAZLEAK (AL) (16)
Goi-kargudunen eta zuzendarien ordainsariak eta kalte-ordainak, kargua uzten badute	1.- Autonomia-erkidegoaren plangintza eta funtzionamendua (3)
Langile publikoen eta goi-kargudunen bateragarritasunari buruzko ebazpenak, kargua utzi ondorengoak	2.- Kontratuak, hitzarmenak eta diru-laguntzak. (6)
Zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea	3.- Autonomia-erkidegoko eta partaidetutako erakundeetako goi-karguak (3)
Jabetzan duten ondasun higiezin zerrenda edo haien gainean eskubide errealean bat dutenena	4.- Ekonomiari eta aurrekontuari buruzko informazioa. (4)

GOI-ESKALA GARDENTASUNAREN, HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ETA GOBERNU ONAREN EAEKO LEGE-PROIEKTUA	
ERAKUNDEEI ETA ANTOLAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA	ERAGIN EKONOMIKOA DUEN ADMINISTRAZIO-JARDUERARI BURUZKO INFORMAZIOA
Eginkizunak, araudia, kokalekua, jendearentzako ordutegia, arreta emateko eta izapidetzeko bide elektronikoak	Laguntzak eta diru-laguntzak: arauak; onuradunak; zenbatekoak, eta laguntzak eta diru-laguntzak emateko modua
Administrazio-antolamendua eta eskumenak, araudia, antolamendu-egitura, gobernu-organoak, organo aholku-emaileak eta parte hartzeak, haien jarduerak eta hartzen dituzten erabakiak barne	Egiten ari diren azpiegitura-obra nagusiak, haietan egindako aldaketak zehaztuta
Organigrama, arduradunak eta agintariak (profil eta ibilbide profesionalak zehaztuta), harremanetarako helbide elektronikoak, agenda instituzionalak, kargu-uzteagatik kalte-ordainak eta jardura pribatuarekiko bateragarritasuna. Behin-behineko langileak, haien lanak eta ordainsariak	Lankidetzeta-hitzarmenak
Lanpostu-zerrenda eta haien ordainsariak, lan-baldintzei buruzko akordioak, enplegu publikoaren eskaintzak eta giza baliabideak antolatze planak, aldi baterako enplegu-deialdiak barne	Hautaketa-prozesuetarako deialdiak, izendapenak, ordainsariak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak, goi-zuzendaritzako kideen eta lan-kontratuko langileen kargu-uzteak eta arrazoiak
Bigarren lanpostu bat edukitzeko bateragarritasuna baimenduta daukaten enplegatuen zerrenda. Urteko orduak eta liberazio horiek (sindikalek) eragiten dituzten kostuak	Kudeaketa-gomendioak
PLANGINTZARI ETA EBALUAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	Sinatutako kontratuak eta haien gainean egindako aldaketak (esleipendunek argitara eman beharko dute nolako zerbitzu-mailak eman behar duten); kontratuen banaketa, kontratazio-modaliteen arabera; kontratazio-mahaien osaera eta aktak, eta mahaiek emandako ebazpenak, puntuazioa zehaztuta
Urteko eta urte anitzeko planak eta programak, eta betetze-maila	JARDUERA PUBLIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA
Zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea	Gobernu Kontseiluaren edo haren gobernu-organoen edo -administrazioaren erabakiak
Jardura-plan bakoitzaren parte hartze moduak	Goi-kargudunen eta zuzendaritza-kideen agenda osatzen duten ekitaldi publikoak
Lege-aurreproiektuek, plan estrategikoei eta jardura garrantzitsuek duten inpaktuari buruzko aurretiazko ebaluazioak	Emandako zerbitzu publikoak, zerbitzu-karta eta zerbitzu publikoen betetze- eta kalitate-maila
Gobernu Planaren garapeneren segimendua	Publizitate-kanpainetan egindako gastu publikoa
Politika publikoen emaitzen eta eragin metatuen ebaluazioa	EKONOMIARI, AURREKONTUEI ETA ESTADISTIKEI BURUZKO INFORMAZIOA
Arau-multzoen inpaktuaren ebaluazioa	Aurrekontuak eta gauzatze-maila, zorpetze-maila, urteko kontuak eta auditoria-txostenak. Aurrekontu-partidei buruzko kontzeptuak.
GARRANTZI JURIDIKOA DUEN INFORMAZIOA	Ondasun eta eskubideen inbentario orokorra
Indarreko araudia	Jabetzan hartutako ibilgailu-kopurua
Illoak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak... zuzenbidearen interpretazioa dakarten neurrian	Langileen, goi-kargudunen, zuzendaritzako kideen eta behin-behineko langileen ordainsariak... kalte-ordainak eta pizzarriak barne
Lege-aurreproiektuak eta legegintzako dekretu-proiektuak, memoriekin eta txostenekin batera	INTERES OROKORREKO INFORMAZIOA
Erregelamendu-proiektuak, memoriekin eta txostenekin batera	Informazio kartografikoa
Katalogo eguneratua, indarrean dauden administrazio-prozedura guztiak	Trafikoa, eguraldia, ingurumena, lurralde-antolamendua, hirigintza, kultura, osasuna, hezkuntza...
Jabari publikoan edo zerbitzu publikoen kudeaketan eragina izan dezaketen administrazio-egintzak, erantzukizunpeko adierazpenak eta aurretiazko komunikazioak	Zerbitzu publikoetara iristeko baldintzak: ordutegiak eta tasak
Administrazio-bidean berrikusteko prozedura bat izan duten egintzak	Herritarrei zerbitzu emateko eta parte hartze bideak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura eta horien ebazpenen gaineko datuak
Garrantzi publikoa izan dezaketen ebazpen administratibo edo judicialak	HERRITARREK ETA ZENBAIT INTERESEN ORDEZKARI DIREN TALDEEK PARTE HARTZEKO ERREGISTROA
Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenak	Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzean, herritarrek gehien eskatzen duten informazioa

KONTROL- ETA AGINTE-TRESNAK

Informazio mota bakoitzaren atzean, bete nahi den **xedea edo xedek** daude (informatzea, kontrolatzea, parte hartzea), Gobernu Onaren printzipioei lotuta (parte-hartzea, gardentasuna, legezotasuna, etika, erantzukizuna, adostasuna, zuzentasuna, eraginkortasuna eta efizientzia). Adibidez:

☀️ Indarrean dauden arauak argitaratzeak (zirkularrak, argibideak eta halakoak, edo lege- edo araudi-proiektuak) izapidetze-fasean daudenean, baita horien euskarri diren txosten juridikoak eta beren inpaktu-ebaluazioak ere, herritarrei aukera ematen die arauen kalitatea ikusteko eta kontrolatzeko, eta baita horiek betetzen ote diren neurtzeko. Alegia, **legeria** zenbateraino aplikatzen den ikus dezakete.

☀️ Antolatzeko modua argitaratzeak, eskumenak eta erantzukizunak banatzeko modua, eta lankidetzaren jardura (kontsulta eta parte-hartze organoak, eta horien jarduerak eta erabakiak) argitaratzeak agerian uzten du erabaki publikoen legitimotasuna, **adostasun** batera iristeko garaian.

☀️ Legealdi bakoitzean ezarritako Gobernu Planaren eta urte bateko edo askotako planen eta programen segimendua nahiz plan horien guztien betetze maila argitaratzeak esan nahi du

bere gain hartzen dituela banaka nahiz taldean hartutako erabakiak.

☀️ Hainbat informazio argitaratzeak **jarduketa eta baliabide publikoen eraginkortasuna balioztatzea** ahalbidetzen du, baita ezarritako prozedurek eskaintzen duten bermea ere. Informazio horretan sartzen da: politika publikoek izan duten eragina, zerbitzu-eskaintzan ezarritako konpromisoen betetze maila, aurrekontuak gastatzeko modua, nor kontratatzen den edo diru-laguntza publikoak nork jasotzen dituen, zorpetze-mailak, eskura dituzten kontu edo ondasun publikoak, etab.

☀️ Kargu publikoen jardunbidearen kode etikoak, agenda instituzionalak, jasotzen dituzten ordainsariak eta pizgarriak, edo kontratazio-mahaien aktak argitaratzeak laguntzen du jarduketa publikoak oinarri izan behar dituen **balio etikoak berrezartzen** eta erakunde publikoekiko konfiantza areagotzen.

☀️ **Herritarrek** kudeaketan edo politiken eta zerbitzuen ebaluazioan **parte hartzeko** dituzten kanal irekiak eta parte-hartze hori gauzatzeko moduak argitaratzeak, baita herritarrek edo interes-taldeek gauzatutako parte-hartze jarduerak ere lankidetzan aritzeko interesa


areagotzen du, taldean ikasten laguntzen du (eztabaida-prozesu publikoen bidez) eta legitimotasuna ematen die erabaki publikoei.

☀️ Laguntzen edo diru-laguntzen hartzaileei, kontratazio publikoaren onuradunei edo politika publikoak talde batean edo bestean dituen

eraginei buruzko informazioa argitaratzeak birbanatze-politika hobea egiten eta horrek **zuzentasunean** duen benetako eraginaren ideia zuzenagoa hartzen laguntzen du.

Horrela sortzen da erakunde demokratikoekiko konfiantza eta hobetzen da kalitate demokratikoa. Munduko Bankuaren arabera, "erakundeei eta hazkunderari buruz egin diren azterketa serioen arabera, korrelazio positiboa eta sendoa dago

herrialde bateko gobernu onaren printzipioen eta per capita barne-produktu gordinaren (BPGd) artean, baita gobernu onaren eta osasun- nahiz hezkuntza-zerbitzuen kalitatearen artean ere. Laburbilduz, Gobernu Ona erabaki ekonomiko egokia da".



IRTEERA BAT PLANIFIKATZEA

NABIGAZIOA

Itsasora irteera bat planifikatzen hasteko, egin nahi dugun itsas bidearen ezaugarriak eta berezitasunak aztertu eta jakin behar ditugu. Horretarako, guztion eskura dauden informazio-iturriak erabiliko ditugu, eta horiek argibideak emango dizkigute kostaldeaz, bere gorabeheraz eta inguruko itsas lasterrez. Esparru orokor hori izanda, aldez aurretik jakin behar dugu zein

den gure itsasontziak duen erregai-autonomia: gure itsasketan hartzen dugun lastertasuna hoberena denean bakarrik iritsi ahal izango gara portura bere garaian eta nahikoa erregairekin. Dena den, elementu batek beti eragingo dio guk portuan diseinatzen dugun plangintza edo ibilbideari: eguraldiaren iragarpenak, alegia.

OHARRAK

Garrantzitsuena, BIDAIARIAK: informazio publikorako eskubidea bermatu behar da

Garrantzitsua da hori aldez aurretik jakitea eta horretarako prest egotea, ibilbiderik seguruenak hautatuz eta gure itsasketarako arriskutsuagoak diren beste batzuk baztertuz. Prestakuntza onari esker, galerna handiko kasu berezietan bakarrik uko egingo diogu gure ontziaz itsasoratzeari.

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak **informazio publikoa eskuratzeko eskubidea** aitortzen dio pertsona orori. Informazio publikoa izango da administrazio publikoek, horien sektore publikoek edo horien parte-hartzea duten erakundeek beren funtzioak gauzatzean egin edo eskuratu dituzten eduki edo dokumentu guztiak, edozein formatu edo euskarritakoak, baita zuzenbide publikoko korporazioenak (administrazio-zuzenbideari lotutako jardueri dagokienez) eta beste hainbat erakunderenak ere: Errege-etxea, Kongresua eta Senatua, Konstituzio Auzitegia, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Espainiako Bankua, Estatu Kontseilua, Herriaren Defendatzailea, Kontuen Auzitegia, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua eta horien antzeko erakunde autonomikoak (administrazio-zuzenbideari lotutako jardueri dagokienez).

Edozein pertsonak eskura dezake informazio publikoa, horretarako eskaera eginda (ahal bada, eskaera elektronikoa). Berdin dio administrazio-prozedura den edo ez, espedientea izapidetze-prozeduran edo amaituta dagoen, edo eskatzailea espedienteko pertsona interesduna den edo ez.

Okerreko hartzaile bati bidaliz gero, ez onartutzat jo daiteke, nori dagokion ez badakigu. Nori dagokion jakinez gero, informazioa onartu eta dagokionari bidali behar zaio, ofizioz.

Horrez gain, **eskaera uka daiteke**, baldin eta:

- ☸ informazioa gauzatze-prozesuan edo argitalpen orokorreko fasean bada. Euskal Autonomia Erkideko gardentasunari buruzko Legearen proiektuak adierazten du eskaera ez onartzeko ebazpenean justifikatu egin behar dela organoa informazioa sortzen ari dela, baita hori amaitzeko aurreikusitako denbora ere
- ☸ informazioa osagarria edo laguntzazkoa bada (oharrak, zirriborroak, iritziak, laburpenak, komunikazioak eta administrazio-organoen edo -erakundeen arteko barne-txostenak). Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari buruzko Legearen proiektuak ezartzen du derrigorrezko txostenak ez direla informazio osagarritzat jo behar
- ☸ informazioa hedatzeko berregin egin behar bada. Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari buruzko Legeak ezartzen du ohiko erabilerako tratamendu informatizatua ez dela berregitetzat hartzen
- ☸ gardentasun-helburuarekin justifikatzen ez den eskaera errepikakorra eta gehiegizkoa bada.

Beste pertsona batzuei eragiten badie, horren berri emango zaie, alegazioak egin ditzaten eta, hala badagokio, beren berariazko baimena eman dezaten. Horren berri emango zaio pertsona eskatzaileari eta ebazteko epea bertan behera geldituko da, alegazioak edo baimena jaso arte, edo horiek aurkezteko emandako 15 eguneko epea igaro arte.



Oinarritzko araudiak 30 eguneko **epea** ezartzen du ebazpena egiteko. Epe hori beste 30 egunez luza daiteke beharrezkoa bada, informazioaren kopuruarengatik edo konplexutasunarengatik. Luzapenaren berri eman beharko zaio, alde zurretik, eskatzaileari. Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari buruzko Lege-proiektuak 15 eguneko epea ezartzen du, beste 15 egunez luza daitekeena. Eusko Jaurlaritzak, 2015-01-13tik, Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez, erantzuna emateko 20 eguneko epea jarri dio bere buruari.

Isiltasuna negatiboa da. Euskal Autonomia Erkidegoko gardentasunari buruzko Lege-proiektuak ezartzen du nahitaezkoa dela kasu guztietan ebazpena egitea, eta horretarako ezarritako epea betetzea.

Informazioa elektronikoki eskuratuko da ahal dela, ezinezkoa denean edo eskatzaileak berariaz beste bitartekoren bat adierazi duenean izan ezik.

Hirugarren pertsona bat aurka agertu bada, informazioa administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko emandako epea igaro ondoren bakarrik eskuratu ahal izango da, horretarako baimena eman bada.

Informazioa aurrez argitaratu bada, ebazpenean eskatzaileari informazioa nola eskura dezakeen adierazi besterik ez da egingo.

Informazioa eskuratzea **doakoa** izango da. Dena den, kopiak atera edo informazioa jatorrizkoa ez

den beste formatu batera aldatu nahi izanez gero, ordainarazpenak ezarri ahal izango dira.

Informazioa eskuratzeko eskaerak atzera bota daitezke arrazoi hauetakoren bat dela medio (**informazioa eskuratzeko mugak**):

- segurtasun nazionala
- defentsa
- kanpo-harremanak
- segurtasun publikoa
- zigor-, administrazio- eta diziplina-arloko legez kanpoko gertakarien prebentzioa, ikerketa eta zehapena
- alderdien berdintasuna prozesu judizialetan eta tutoretza judizial eraginkorra
- zaintzako, ikuskapeneko eta kontroleko administrazio-funtzioak
- interes ekonomiko eta komertzialak
- ekonomia- eta diru-politika
- sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak
- konfidentzialtasun-bermea edo erabakia hartzeko prozesuetan eskatutako sekretua
- ingurumenaren babesak

Informazioak datu pertsonalak balitu, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa aplikatu beharko da.

Alabaina, ez dugu ahaztu behar erakunde garden batean **ukapenak salbuespenezkoa izan behar duela** eta behar bezala arrazoituta egon behar duela. Hori dela eta, mugen eta egon daitezkeen sarbidea ukatzeko arrazoi azterketa bat egin beharko da, baita ukapen horrez gain sarbidea justifikatzen duen interes publiko edo pribatu handiago baten azterketa ere. Gardentasunari buruzko nazioarteko hainbat araudik gomendatzen dute informazioa eskuratzeko beharrekiko ondasun juridikoari egin diezaiokeen kaltearen eta garrantzi handiagoko interes publiko edo pribatuaren arteko **proporzionaltasuna baloratzen laguntzen duten tresnak erabiltzea**:

☀️ **“kaltearen testa”** hainbat mailatan aplikatu daitezke, honen arabera: informazioa eskuratzeko ukatzeko nahikoa den kalte bat sortzea, edo kalteak “serioa edo esanguratsua” izan behar duen

☀️ **“interes hartzapenak”** esan nahi du derrigortutako agintaritzak gardentasunaren interes orokorra eta salbuespenak babestutako interesa hartzapen behar dituela; hala, bigarrena lehenengoaren gainetik dagoenean bakarrik ukatu ahal izango da informazioa eskuratzeko eskubidea

☀️ **“onespen-eskakizuna”**, alegia, dokumentu jakin batzuetarako sarbidea bakarrik ukatu ahal izango da hirugarren pertsona batek berariaz onesten duenean; esaterako, datu pertsonalen kasuan, kaltetuak alde zurretik onespenean eman duenean, edo sekretu ofizialen kasuan, organo eskudunak hori argitaratzeko alde zurretik erabakia hartu duenean.

Edonola ere, informazioa desnaturalizatzen ez bada (distortsioa edo zentzurik gabeko informazioa), eskatutako informazioa **partzialki eskuratzeko** aukera eman daiteke. Hala, informazioa eskuratzeko egon daitezkeen mugak zaintzen dira, eskatzaileari jakinaraziz informazioaren zati bat ez zaiola eman.

Arauan ezarritako mugak aplikatuz, informazioa eskuratzeko eskaeren ezezko ebazpen guztiak (osoak edo zati bati bakarrik dagozkionak) argitaratu egin beharko dira, babestu nahi izan den ondasuna zein den adieraziz eta datu pertsonalak informaziotik kenduz, eskatzaileari jakinarazi ondoren.

Ebazpenek bukaera ematen diote administrazio-bideari, eta horien aurkako errekurtsoa jar daitezke, zuzenean, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.


IRTEERA BAT PLANIFIKATZEA

Administrazio-espediente batek barne hartzen duen informazioa bada edo bertan aipatutako pertsona interesdunak eskatzen badu, eta espedientea amaitu gabe badago: sarbidea dagokion prozedura erregulatzen duen arauaren edo, hala badagokio, administrazio-prozedura erkideari buruzko legearen arabera izango da.

Badaude informazio publikorako sarbidea berriaz arautzen duten beste arau sektorial eta erregelamendu batzuk, esaterako, arlo hauetan:

ingurumen-informazioa, parlamentuko jarduerari buruzko informaziorako sarbidea (administrazio-zuzenbidearen arloko jardueren esparruan bakarrik jarraitzen diote 19/2013 Legeari), zinegotziek udal-korporazioari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea, parlamentariak gobernuei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea (legez dagozkien kontrol politikoko eta fiskalizazioko zereginak betetzeko), etab.

SARTZEKO ESKUBIDEA. PROZESU OROKORRA



NABIGAZIORAKO SISTEMA IRRATIELEKTRONIKOAK

NABIGAZIOA

Gure itsasaldian ez ditugu beti nabigatzeko baldintzarik onenak izango. Batzuetan, urtxikitan ibilikogara, horietan egiturak eta motorrak nozitu egiten dute, eta erraza da gure itsasontziaren kontrola galtzea. Urautsietatik urrundu behar dugu, eta aingura edo ainguratzeko beste mekanismo batzuk beti prest izan. Ikusgaitasun gutxiko egoeretan ere itsastatu beharko dugu batzuetan.

Nabigazio-mota hau kontuz ibiltzekoa da eta batzuetan arriskutsua ere bai; beraz, gure itsasontziaren kokapena jakin beharko dugu beti GPSren bidez. Sistema irratielektronikoek eta talkaren aurkako laguntzek (adibidez, radarrek) ahalbidetuko digute laino-guneetan seguru ibiltzea eta onik porturatzeko gure bideari jarraitzea.

OHARRAK

Gurutzaldi-abiadura KONTUZ
GALERNEKIN! Datu pertsonalak babestea
kasuz kasu.

Gardentasun-printzipioaren erregulazioa berria da Espainian; izan ere, 19/2013 Legearen aurretik ez zegoen gardentasuna sustatzen zuen araurik. Beraz, abiadan egin behar dugu aurrera, baina legeak informazio publikoa eskuratzeko ezartzen dituen mugekin zerikusia izan dezaketen akatsekin estropezu egin gabe.

Aurreko atalean aipatu ditugu mugak, baina horiek aplikatzea ez da erraza beti. Hori dela eta, oso interesgarria da gardentasuna kontrolatzen duten organo independenteek hainbat irizpenen eta txostenen bidez ematen dituzten orientabideei eta irizpideei adi egotea.

Orain arte, **Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluak** eman ditu kasu desberdinetarako mugak interpretatzeko irizpideei buruzko txosten gehien. Informazioa Kontseiluaren web orrialdean ikus daiteke:

Bereziki interesgarria da publizitate aktiboan edo **datu pertsonalak** barne hartzen dituen informazio-eskaeren aurrean zer egin behar den identifikatzeko ematen duten orientazioa. Beren ustez, elkarren segidako etapa edo fase hauei jarraitu behar zaie, kasu bakoitzaren analisia eginez:

1. Eskatutako edo argitaratutako informazioak datu pertsonalik barne hartzen duen baloratu, datu pertsonaltzat hartuta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3. artikuluan zehaztutakoak.
2. Hala izanez gero, baloratu ea datu horiek bereziki babestutakoak diren edo ez, DBLOren 7. artikuluan ezarritako baldintzen arabera; alegia:

☸ a) Ideologia, sindikatu-afiliazioa, erlijioa edo sinesmenak adierazten dituzten datuak. Kasu horretan, kaltetuaren berriazko eta idatzizko baimena behar izango da datuak argitaratzeko, kaltetuak informazioa eskuratzeko eskaera egin aurretik datu horiek publikoak egin ez baditu behintzat.

☸ b) Arraza-jatorriari, osasunari eta bizi sexualari erreferentzia egiten dioten datu pertsonalak. Kasu horretan, datuak argitaratzeko derrigorrezkoa izango da kaltetuaren berriazko baimena edukitzea edo lege mailako arauen batek hala ezartzea.

☸ c) Arau-hauste penalak edo administraziokoak egitearekin zerikusia duten datu pertsonalak. Kasu horretan, datuak argitaratzeko derrigorrezkoa izango da kaltetuaren berriazko baimena edukitzea edo lege mailako arauen batek hala ezartzea, eta arau-hauste penal edo administrazioko horiek ez dute arau-hauslearentzako ohartarazpen publikorik ekarri behar.

3. Informazioak barne hartzen dituen datu pertsonalek ez badute babes berezirik, baloratu ea erakundearekin, horren funtzionamenduari edo dagokion organo edo entitatearen funtzionamenduari edo jarduerarekin lotura duten identifikazio-datuak besterik ez diren. Hala badira, informazioa orokorrean argitaratuko edo emango da, kasu zehatzen batean salbu, esaterako, datu pertsonalen babesa eta Konstituzioak babesten dituen beste eskubide batzuk lehenesten direnean, hedapenerako interes publikoa dela eta.



4. Datu pertsonalak ez badira identifikazio-datuak bakarrik eta ez badute zerikusirik erakundearekin edo organoaren funtzionamendu edo jardura publikoarekin (ez behintzat berariaz), egin gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legearen 15. artikuluko 3. atalean zehaztutako haztapena.
5. Amaitzeko, aurreko pausoak egin ondoren, baloratu ea aplikagarriak diren arauan ezarritako gainerako mugak. Horiek ez dira zuzenean aplikatzen; interes arrazoidun eta bidezko bat babestearekin lotuta egon beharko dute.

Datuak Babesteko Euskal Agentziak informazioa eskuratzeari eta gardentasunari buruzko bere doktrina jasotzen duen lan bat argitaratu zuen 2014an, datuen babesari lotutakoa. Argitalpen horrek agentziak gai hauekin lotuta eman dituen hainbat irizpen barne hartzen ditu:

- ☀ Informazioa eskuratzeko eskaerak kontrol politikoaren esparruan (zinegotziek korporazioaren informazioa eskuratzeko, bai eta talde politikoek, parlamentariak, etab. ere).
- ☀ Babes berezia duten datuekin zerikusia duten informazioa eskuratzeko eskaerak.

- ☀ Datu pertsonalen publizitate aktiboa eta web-ean zabaltzeko aukera.
- ☀ Administrazio-informazioa eskuratzeko eskaera, partikularren aldetik; aukeratze-prozesuen esparrukoa, sindikatuen aldetik; administrazio-informazioaren eskaera, beste administrazio publiko batzuen aldetik.

Oro har, adierazten du eman beharreko informazioan pertsona baten izena edo abizenak besterik gabe agertzea ez dela informazioa ukatzeko nahikoa arrazoi; izan ere, informazioa eskuratzeko eskubidearekiko

jarrera irekia izan behar dugu, eta administrazioak bere esku duen informazioa eman behar du. Horrek ez du esan nahi datuak uzteko ahalmena ematen duen legeko titulurik edo partikularren baimenik behar ez denik. Beraz, datu pertsonalak jasotzen edo tratatzen dituzten administrazioek datu horien titularren baimena lortu behar dute, eta datuak zaintzeko dituzten betebeharren artean, egin ditzaketen informazio-lagapenak zehaztu behar dituzte.

MANIOBRAK ETA LANAK

NABIGAZIOA

Itsasontzi baten eskifaiak ondo-ondo ezagutu behar du bere zeregina portuko maniobra eta lanetan. Itsasontziaren amarrak lotu eta askatzea, zamalanak eta abar ezin dira egin eskifaiaren parte-hartze eta trebetasunik gabe. Bitarteko mekanikoen maneiak, salgaien manipulazioak edo hornitze-lanek baliabide tekniko egokiak eskatzen dituzte, baina betiere langile trebatu eta prestatuek bakarrik egin ahal izango dituzte.

OHARRAK

GARDENTASUNEAN aurrera egiteko
--- nabigazio-gutuna

Gardentasunean aurrera egiteko, eraldatu egin behar dira jarduera publikoa gauzatzeko modua, erabakiak hartzekoa, horiek gauzatzeko eta emaitzen eta

eraginen kontu emateko modua. **Administrazio-kulturaren balioak aldatu** behar dira; aldaketa eraldatzailea da, eta horretarako, beharrezkoak dira:

☼ *Lidergo politiko sendoa eta langile publikoen inplikazioa.* Gardentasunak gobernuen diskurtso politikoaren eta plan estrategikoen zati izan behar du

☼ *Maila bereko arau bat, printzipioak, betebeharrak, bermeak eta horiek lortzeko bideak ezarriko dituen, bai antolamenduari bai tresnei dagokienez*

☼ *Hauekiko harremanak ahalbidetuko dituen antolamendu-eredu bat:*

- o argitaratu beharreko informazioa sortzen duten unitate deszentralizatuak, informazio-eskaerei erantzuteko ahalmena dutenak
- o gardentasuna sustatzen duten, aurrerapenen segimendua egiten duten eta emaitzak ebaluatzen dituzten unitate zentralak
- o publizitate aktiboaren betebeharrak betetzen direla eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzaten dela zaintzen duten unitate independente eta autonomoak

☼ Lan egiteko modu berria zehaztuko duten finkatutako *prozedura* batzuk. Administrazio elektronikoak ahalbidetzen du lan-fluxuak zehaztea, erakunde osoa behar bezala ezarritako erabiltzaile-profilekin eta erantzukizunekin konektatzea, esku artean duten informazio publiko guztia digitalizatzea (eta modu seguruan gordetzea, sarbide mugatua duena babestuz) eta web inguruneetan edo herritarrekiko elkarrekintzarako beste kanal batzuetan beharrezkoa den informazioa etengabe eta eguneratuta argitaratzea

☼ *Tresnak eta baliabideak:* informazioaren eta komunikazioaren teknologiek, webguneez, orientazio-gidek eta -eskuliburuek, ikaskuntza-prozesuek, praktika-komunitateek eta berrikuntza-ekipoek aldaketa-prozesu horretan lagunduko dute. Gardentasun-atariak, herritarrekin elkarrekintzan aritzeko plataformak, open data atariak eta halakoak oso onak eta beharrezkoak dira, baina gardentasunari laguntzeko tresnak besterik ez dira. Ez dakarte gardentasuna, besterik gabe.

LEHORREKO ERREFERENTZIAK

NABIGAZIOA

Portu batekiko gure kokapena jakiteko metodo eraginkor bat lehorreko puntu edo markakezagutu eta erreferentziatzat hartzea izaten da, horiek ahalbidetuko digute eta gure kokapen-lerroa lortzea. Baina ez da bakarra. Gure itsasaldian, itsas seinaleen -buia edo balizen-

laguntza ere izan dezakegu, baita argi-seinaleena ere, argi-distira konstante edo aldakorren bidez eta beraien intentsitate eta kolorearen bidez, gure bidaietan dauden arriskuak ez ezik, gure itsasaldia argitu ere egingo baitute.

OHARRAK

Jarraitu portuetako superintendentziak adierazitakoari, beraien dira kontrol-organoak

Espainiako estatuarentzat eta arlo honetako organo espezifikorik ez duten autonomia-erkidegoentzat (betiere, horretarako hitzarmen bat sinatuta badute) **Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseilua** da jarduera publikoan gardentasuna sustatzeaz arduratzen den erakunde publikoa. Horrez gain, kontseiluak funtzio hauek ditu: publizitate-betebeharrak betetzen direla zaintzea, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea errespetatzen dela zaintzea eta gobernu onaren xedapenak betetzen direla bermatzea. Berezko nortasun juridikoa du eta autonomia eta independentzia osoz jarduten du.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren, Herritarren Parte-Hartzearen eta Gobernu Onaren Lege Proiektuak ezartzen du **Gardentasunaren Euskal Agentzia (GARDENA)**, erakunde autonomo gisa, arduratuko dela jarduera publikoaren gardentasuna sustatzeaz.

Horrez gain, honako funtzio hauek ere izango ditu: publizitate aktiboko betebeharrak eta datuak zabaltzeari dagozkionak betetzen direla zaintzea, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea errespetatzen dela ziurtatzea. Toki-edo foru-esparruko arau espezifikokoak onartu arte, agentzia horrek erantzungo die informazio publikoa eskuratzearekin zerikusia duten aukerako erreklamazioei, administrazioarekiko auzibidean jartzen direnen aurrekoei.

Beste autonomia-erkidego batzuek beste aukera batzuk erabili dituzte: hitzarmenak egitea Gardentasunerako eta Gobernu Onerako Kontseiluarekin, funtzio hori arartekoaren esku uztea, etab. Alabaina, oro har, kontrolerako organo espezifikokoak sortzen ari dira beren gardentasun-legeen bitartez, Estatuak egin duen moduan.

LEGERIA. NABIGAZIO-ARAUAK

Itsas zuzenbideak ez du oraintsu arte izan testu antolatzaile eta eguneraturik, batzuetan sakabanaturik zeuden elementuak eta irizpideak batu eta arautu beharreko errealitate berrietara egokitzeko. Adibidez, jolas-nabigazioa arau erregulatzaile asko baino geroagokoa da, eta merkataritzakoa ez den jarduerabatizanak, zalantzakizandira

ea itsas araudiak arautu behar duen hori edo ez. Nolanahi ere, ez dago zalantzan jartzerik estatuko eta autonomia-erkidegoko esparru arauemaile berriak, arau-egitate berriak sartzeaz gain, zuzenbide arauemailearen printzipioak eguneratu behar dituela eta nabigazioa eta beronen garapena ulertzeko beste era batera egokituko dituela.

OHARRAK

Nabigazio-arauak: gardentasunari buruzko legeria

Azken 4 urteotan, gardentasuna erregulatzen duten arauak ugaritu egin dira Espainian, bai oinarrizkoak (lurralde osorako), bai autonomia-erkidego bakoitzean aplikatzekoak. Espainiako oinarrizko legea atera aurretik, Espainia, Zipre eta Luxenburgo ziren arlo honetako legerik ez zuten Europako herrialde bakarrak. Garai horretan, gardentasunari buruzko 99 lege baino gehiago zeuden munduan.

Espainiako oinarrizko legeria:

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Andaluzia:

1/2014 Legea, ekainaren 24koa, Andaluziako gardentasun publikoari buruzkoa.

Aragoi:

8/2015 Legea, martxoaren 25koa, Aragoiko jarduera publikoaren gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

Kanaria:

12/2014 Legea, abenduaren 26koa, Gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa.

Gaztela eta Leon:

3/2015 Legea, martxoaren 4koa, Gaztela eta Leongo gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

Katalunia:

19/2014 Legea, abenduaren 29koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa.

Balentiako Eskualdea:

2/2015 Legea, apirilaren 2koa, Generalitatearena, Valentziako Erkidegoko gardentasunari, gobernu onari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

Extremadura:

4/2013 Legea, maiatzaren 21koa, Extremadurako gobernu irekiari buruzkoa.

Galizia:

4/2006 Legea, ekainaren 30koa, Galiziako administrazio publikoko gardentasunari eta jardunbide egokiei buruzkoa.

Balear Uharteak:

4/2011 Legea, martxoaren 31koa, Balear Uharteetako administrazio onari eta gobernu onari buruzkoa.

Errioxa:

3/2014 Legea, irailaren 11koa, Errioxako gardentasunari eta gobernu onari buruzkoa.

Nafarroa:

11/2012 Foru Legea, Gardentasunari eta gobernu irekiari buruzkoa.

Murtzia:

12/2014 Legea, abenduaren 16koa, Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoaren gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzkoa.

Madril:

4/2014 Legea, abenduaren 22koa, Zerga- eta administrazio-neurriei buruzkoa (III. titulua: Gardentasuna, Informazioa Eskuratzeko Bideak eta Gobernu Ona).

Euskadi:

Euskal sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte-hartzearen eta gobernu onaren Lege-proiektua.



BALIZAK

Itsasontziak, bere helmugara hurbildu eta portua begiztatzaren denean, agintari eskudunek jarritako seinaleek eta balizek markaturiko noranzkoari jarraitu behar dio. Nabigazioan laguntzeko sistemetarako nazioarteko estandarrei jarraituz, balizek itsasontziaren mugimendu hobea bermatuko dute eta segurtasun handiagoa eskifaiarentzat eta portu-instalazioentzat.

OHARRAK

ZIZTU BIZIAN AURRERA:
gardentasuna bultzatzen edo egiaztatzen
duten erakundeak

Informazio publikoa jakiteko eta eskuratzeko eskubidearekin lotura duten itun, nazioarteko eta gobernu arteko adierazpen eta gizarte zibileko printzipio, gomendio eta estandar ugari daude. Informazio hori jarraian zehaztutako erakundeen webguneetan ikus daiteke. Erakunde horiek arlo honetako erreferente garrantzitsuak eta gardentasunaren aldeko benetako lobby-ak dira.

Transparencia Internacional España erakundeak adierazten du gardentasuna egungo gizartearen helburu garrantzitsu bat dela eta hertsiki lotuta dagoela herritarren informaziorako eskubidearekin. Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute informatuta egoteko eta eragiten dieten erabakietan parte-hartze handiago izateko. Printzipio horiekin eta Tik munduko erakunde gisa dituen helburu orokorrekin eta estrategiarekin bat etorritik, TI-España bere gain hartu du erakunde publikoek herritarren esku jartzeko sortzen duten informazioa gero eta handiagoa eta irekiagoa izateko etengabeko konpromiso soziala.

Access Info Europe giza eskubideen arloko erakunde bat da, eta informazioa eskuratzeko eskubidea sustatzeaz eta babesteaz arduratzen da, Europan eta munduan; izan ere, informazioa tresna garrantzitsua da askatasun zibilak eta giza eskubideak defendatzeko, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eta gobernuak fiskalizatzea ahalbidetzeko.

Fundación Ciudadana CIVIO irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, eta bere helburua da herritar-kontzeptu aktibo eta inplikatu bat sustatzea, informazioaren gardentasuna eta datuen zabalkuntza azpimarratuz. Horretarako, aplikazio teknologikoak garatzea eta kalitatezko kazetaritza-edukiak sortzea du xede.

Coalición Proceso taldeak 65 erakunde barne hartzen ditu, horien artean, Transparencia Internacional

España, Acces Info Europa eta Fundación Ciudadana Civio. Mugimendu nazional hau zabala, askotarikoa eta anitza da, eta bere helburua da informazio publikoa eskuratu ahal izateko ahalmena eta boterea sendotzea. Hainbat erakunde eta banako barne hartzen ditu plataforma honek. Erakunde horiek guztiak informazioa eskatzen dute, ikerketak eta diagnostikoak egiten dituzte, esperientziak eta baliabideak trukatzeko dituzte, publiko mota desberdinak trebatzen dituzte eta agenda komunak eraikitzen dituzte, eremu publikoan eragina izateko. Erakunde honek sustatu zuen **"Tu derecho a saber"** bloga. Espainiako edozein erakunde publikori informazioa eskatzeko aukera ematen die herritarrei, eta erantzunak eta Espainiako administrazio publikoak erantzuteko dituen moduei buruzko txostenak argitaratzen ditu. Halere, berriki bere itxiera jakinarazi da. Britainia Handiko mySociety WhatDoTheyKnow.com webgune arrakastatsuan dago oinarrituta. Beste herrialde batzuetan ere badituzte tuderechoasaber.es webgunearen antzeko beste batzuk, esaterako, Brasilen, Alemanian, Txilen edo Kosovon; baita Europar Batasunean ere: AsktheEU.

Pro Bono Público irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da, 2009an sortua. Haren helburua da datu publikoak argitaratzea eta teknologia administrazioen gardentasuna eta eraginkortasuna areagotzeko erabiltzea, eta, horrela, gure gizarte-bizitza hobetzea. Hainbat proiektuekin ekin zion bere bideari elkarte honek, esaterako, "dónde van mis impuestos" izenekoarekin.

Red de Entidades Locales por la Transparencia y la Participación Ciudadana "erronka bat da, baina baita toki-erakundeei legeak ezarritako betebeharreri hobeto erantzutea ahalbidetuko dien aukera bat ere, ikuspegiak eta baliabideak partekatuz".



Gardentasunaren Aldeko Euskadiko Udalen Sarea 2013ko urtarrilaren 30ean sortu zen, udal-gardentasuna sustatzeko eta hausnarketak, irizpideak eta tresna komunak partekatzeko asmoz. Gaur egun, tamaina guztietako 32 herritako udalek (txikiak, ertainak eta handiak) eta Txorierriko Mankomunitateak osatzen dute.

Fundación Compromiso y Transparencia (lehen Fundación Compromiso Empresarial) 2007an sortu zuten enpresaren, akademiaren eta irabazi-asmorik gabeko sektorearen arloko hainbat profesionalak, helburu honekin: gobernu ona, gardentasuna, kontuak ematea eta erakundeen gizarteko inpaktua sustatzea.

Asociación Española de Acreditación de la Transparencia-AKREDITRA irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 2013an sortua. Gardentasunaren arloko aholkularitzaren eta ikuskaritzaren esparruan lan egiten duten hainbat profesional biltzen ditu, baita arlo horretako estandar altuenak beren gain hartu dituzten eta horiekiko konpromisoa duten erakundeak ere. Bertako kideek, banakoek nahiz taldeek, osatzen dute Espainiako Gardentasuna Akreditatzeko Sistemaren oinarria.

Transparencia Española erakunde independentea da, eta haren helburuak dira gobernu ona, gardentasuna eta informazioa eskuratzeko aukerak sustatzea eta horien aplikazioa erraztea. Horrez gain, gobernu irekia, gardena eta parte-hartzailea ezartzen lagundu nahi du. Horretarako, konparaziozko azterketak, ebaluazio sakonak, garapenerako aholkularitza, espezializazio tekniko eta estrategikorako prestakuntza, gardentasunerako komunikazio-kanalen artikulazioa, egiaztapenak eta ziurtagiriak egiten ditu. Gardentasunaren Legea betetzeko "Udal Behatokia" jarri du martxan. Azterlan horrek 5000 biztanle baino gehiagoko 1305 udalerriak barne hartuko ditu, eta 120 gai aztertuko ditu, udalerrri horietako udalek gardentasunarekin eta gobernu onarekin duten konpromiso maila ezagutzeko.

ONDORIO GISA

Nabigatzea bizitzako metaforarik erabilienetako bat izaten da. Destino bat aukeratu, etortzeko dauden arrakastak eta porrotak planifikatu, norabidea eta intentsitatea finkatu, itsasontzia prestatu eta azkenean itsasoratu: hori guztia pertsonok egiten dugu.

Haizeak, klimak, itsas lasterrek, uraren mailak eta, noski, eskifaiak eragiten dute guk nahi bezala porturatzea, edota irteera atzeratzea ere bai.

Ziur-ziur dakiguna da, beti, unerren batean, onik porturatu behar dugula.

Nabigatzen ikasten dugunean mundu berri batean murgiltzen gara. Gure azpian duguna mugitu egiten da, beste hizkuntza batean hitz egin eta komunikatzen

gara, pertsona ezagun eta ezezagunekin elkarbizitzen gara eremu txiki eta guretzat ezohikoetan, naturak eskainitakoa onartzen ikasten da, eta itsasontziaren mekanismo guztia egokitzen ere bai, nabigazioa posible izan dadin.

Trukean, urek eta itsasoek estampa eta esperientzia ahaztezinak oparitzen dizkigute. Nabigatzeak ikasteko aukera ematen digu, erronkei aurre egiten, erantzukizunez eta tolerantziaz jarduten, naturak eta itsasoak berak guretzat prestatuak dutena onartzen, bidaiariei zerbitzu ematen ...

Gardentasunean nabigatzea beharrezkoa da, nabigatzea bizitzeko modu bat baita.

Hasiko gara nabigatzen? JASO AINGURA ITSASORA GOAZ ETA!

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA. EUSKO JAURLARITZA

PROIEKTUA: Gardentasuna eta Gobernu Ona

ARGITALPENA: Gardentasunean Ontziratuko gara. Eskifaiaren eskuliburua (2015eko abendua)

LAN-TALDEA:

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza

Javier Bikandi. Zuzendaria

Koldobike Uriarte. Proiektu Arduraduna

Innobasque - Berrikuntzaren Euskal Agentzia

Gotzon Bernaola. Gizarte Berrikuntzako Programa Zuzendaria

Goizalde Atxutegi. Gizarte Berrikuntzako Proiektu Arduraduna

Kanpo-kolaboratzailea:

Danel Alberdi (Coach&Play)